




DUETO

BILBAO

Diseinuaren bidez enpresa-berrikuntza bultzatzeko programa



Zer da Dueto Bilbao?

DUETO BILBAO Bilboko diseinu-estudioei zuzendutako deialdia da. Helburua da Bizkaiko enpresa batek planteatutako erronka bati diseinuaren bidez erantzun eta irtenbide berritzaileak garatzea.

Gehienez **4 hilabetez**, zure diseinu-estudioak enpresaren erronka hori aukera bihurtzeko lan egingo du, berrikuntza eta eraldaketa sustatuz.

 *Zure negozioa bultzatzeko tresna gisa erabiltzea Diseinua*

Zergaitik Dueto Bilbao?

DUETO BILBAO ekimenaren helburua da Bilboko talentu sortzailea Bizkaiko enpresa-sarearekin harremanetan jartzea, eta benetako proiektuen bidez erakustea diseinua enpresen eraldaketarako tresna eraginkorra izan daitekeela. Horren bidez, enpresei lagundu nahi zaie:

- Aukera berriak identifikatzen.
- Bezeroak hobeto ulertzen.
- Produktu eta zerbitzu lehiakorragoak garatzen.
- Barne-prozesuak hobetzen.
- Jasangarritasuna eta zirkulartasuna txertatzen.
- Gero eta konplexuagoak diren merkatuetan bereizgarri izaten.

 *Diseinatzea ez da konponbideei forma ematea soilik; enpresei eraldatzen, berritzen eta aurrera egiten laguntzeko tresna ere bada.*

2026ko Dueto Bilbao erronka

Programa honetan parte hartzen duen enpresak exoeskeletoetan oinarritutako laguntza fisikoko irtenbide teknologikoak garatzen ditu, pertsonen eta sistema teknologiko aurreratuen arteko elkarreragina errazteko. Programaren baitan, **erabiltzailearen eta exoeskeletoaren arteko egokitzapen eta integrazio fisikoko sistema berriz diseinatzeko erronka planteatzen du**, ergonomia, erosotasuna, erabilerraztasuna, erabiltzaile-profil desberdinetara egokitzeko gaitasuna eta irtenbidearen jasangarritasuna hobetzeko helburuarekin.

Proiektuak gaur egungo erabilera-esperientzia aztertu beharko du, eta exoeskeletoa erabiltzailearen gorputzera egokitzeko lotura-, doikuntza- eta egokitzapen-elementuak optimizatzen bideratutako diseinu-proposamenak garatu. Horretarako, pertsonengan oinarritutako diseinuaren, irisgarritasunaren, mantengarritasunaren, modularitatearen eta ekonomia zirkularraren irizpideak txertatuko dira.

Baldintzak

Bilbao Ekintzak diseinu-estudio bat hautatu eta kontratatuko du, aukeratutako erronkari erantzuteko, **10.000 € + BEZeko** aurrekontuarekin.

Zure Konpromisoa:

- Enpresaren testuingurua entzun eta sakon ulertzea.
- Diseinuko metodologiak aplikatzea.
- Berrikuntza-prozesuak erraztea eta dinamizatzea.
- Bideragarriak eta balioa sortzen duten proposamenak garatzea.
- Enpresaren lehiakortasuna hobetzen laguntzea.

 *Enpresa-erronka bat eraldaketarako aukera bihurtzea.*

Zer motatako profilak bilatzen dira?

Aurtengo edizioan, erronkak bereziki **industria- eta produktu-diseinuko profilak** ditu jomugan, ergonomian, pertsonengan oinarritutako diseinuan eta produktu teknologiko konplexuen garapenean esperientzia dutenak.

Erronka honi aurre egiteko, bereziki honako arlo hauetan esperientzia duten estudio eta profesionalak bilatzen dira:

- Industria- eta produktu-diseinua.
- Ergonomia eta giza faktoreak.
- Fabrikaziorako eta muntaketarako diseinua.
- Produktu teknologiko konplexuen garapena.

Enpresak eskainiko dituen baliabideak eta lankidetzak

Proiektuan parte hartzen duen enpresak zeregin aktiboa izango du prozesu osoan zehar, eta diseinu-estudioaren esku jarriko ditu elkarlana errazteko beharrezkoak diren baliabideak.

Zehazki, proiektuak **zuzendaritzaren eta produktua sakon ezagutzen duten profil tekniko espezializatuen inplikazio zuzena** izango du. Horrez gain, diseinu-estudioak informazio teknikoa, **diseinu- eta prototipatze-instalazioak, baliozkotze-baliabideak eta benetako erabilera-inguruneak** eskuratu ahal izango ditu, proiektuan zehar garatutako proposamenak aztertu eta kontrastatzeko.

Era berean, enpresak adierazi du lortutako emaitzak bere produktuen etorkizuneko garapenean txertatzeko asmoa duela.

Nola funtzionatzen du?

1

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO DOKUMENTAZIOA

1. **I. eranskina:** Eskabide-orria eta erantzukizunpeko adierazpena.
2. Programan parte hartzeko **motibazio-gutuna** (gehienez 2 orrialde).
3. **Curriculum vitae**-a (gehienez 3 orrialde/pertsona).
4. Egindako lanen **portafolioa**, estudioak edo profesionalak garatutako gehienez hiru proiektu jasoko dituen (gehienez 6 orrialde).

2

DISEINU-ESTUDIOAREN HAUTAKETA

Bilbao Ekintzak jasotako hautagaitzak ebaluatuko ditu, eta deialdiaren oinarrietan ezarritako irizpideen arabera diseinu-estudio bat hautatuko du.

1. fasea: Ebaluazio teknikoa

- Prestakuntza eta profil profesionala.
- Erronkari lotutako esperientzia esanguratsua.

2. fasea: Balorazio Batzordearekiko eta enpresarekiko elkarrizketa

- Erronkarekiko egokitasun profesionala.
- Lankidetzarako eta proiektua garatzeko gaitasuna.

3

LANKIDETZAREN FORMALIZAZIOA

- Hiru aldeen arteko akordioa sinatzea (enpresa + diseinu-estudioa + Bilbao Ekintza).
- Proiektuaren irismena zehaztea, enpresaren eta diseinu-estudioaren artean adostutako dokumentu baten bidez.
- Bilbao Ekintzak diseinu-estudioa kontratatuko du, **10.000 € + BEZeko** aurrekontuarekin.
- La empresa paga una fianza reintegrable de 1.000€

4

PROIEKTUAREN GARAPENA (GEHIENEZ 4 HILABETE)

Enpresaren eta diseinu-estudioaren arteko elkarlana, Bilbao Ekintaren jarraipenarekin.

5

EMAITZAK ETA ITXIERA

Emaitzak eta proiektuaren memoria ematea

Parte hartu deialdian

 **Epea:** 2026ko irailaren 1etik 14ra


Eskabide-dokumentua hemen deskarga dezakezu:

 <https://www.bilbaoekintza.eus/eu/proiektua/programa-dueto-bilbao>

Eskabidearekin lotutako dokumentazio guztia helbide honetara bidali behar da:

 sectores@bilbaoekintza.bilbao.eus

Dueto Bilbao 2026 pausoz pauso



Kontaktua

Conchi Asúa

Hiri Ekonomia | Economía Urbana

email: casua@bilbaoekintza.bilbao.eus

T.: 94 420 53 91

Asier Larrinaga

Hiri Ekonomia | Economía Urbana

email: alarrinaga@bilbaoekintza.bilbao.eus

T.: 94 420 53 70 | 620 36 56 71